

BALIO PROPOSAMENA

Gure balio proposamena, hain zuzen ere, gazteen dibertigarritasun maila handitzeko enpresa bat sortzea da. Enpresa honi esker, txikiak dituzten aukerak gazteei eskaintzea lortuko genuke. Txikiak txiki-parkera joaten diren moduan gazteak dibertitzeko Handi-park izeneko enpresa sortuko dugu. Handi-park lagungarria izango zela iruditu zitzaigun eta horren ondorioz sortzea erabaki genuen. Bezeroei, kasu honetan gazteei, eskaintza handia eskaini eta denbora ona pasatzeko aukera emango diegu.

Hainbat gauza azalduko ditugu gure proiektuaren inguruan: segurtasuna, prezioa, kalitatea, diseinua... Segurtasun aldetik adibidez, aipatzekoa da dena kontrolpean egongo dela eta segurtasun aldetik ez dela arazorik egongo. Gainera, zerbait gertatu ezker, maila handiko medikuak egongo dira bertan.

Prezioak ez du aldaketa handirik izango txiki-park- arekin konparatuz gero. Izan ere, prezioa ondo ezarrita dagoela pentsatzen dugu. Kasu honetan, sarrerak orduka izaten dira, ordu bakoitzeko 6 euro ordaindu beharko dira, larunbatetan izan ezik, 7 eurotara aldatuko bait da eta igandeetan itxita egongo da.

Kalitateari dagokionez, esan dezakegu maila handiko gauzak egongo direla, dena ondo eta bere neurrian egon dadin. Kalitate txarreko gauzak erosiz gero arrisku gehiago egoteko aukera dago eta horri saiesteko kalitate oneko gauzak erostea erabaki dugu. Batez ere, gure proiektuak, arrakasta handia izatea espero dugulako. Diseinuan berriz, txiki-parkean oinarritu gara, baina hainbat gauza aldatuz. Izan ere, lehen esan dugun bezala gazteei zuzenduta dago eta txiki-parkean dauden hainbat gauza ez dira egokiak gazteen Handi-parkerako. Gazteek duten dibertitzeko maila zertxobait aldatzen delako umeekin konparatuz gero.

Ordura arte ez da horrelako gauzarik sortu, horregatik, inbertsio ona dela pentsatzen dugu.

Gu gazteak izanik, pentsatu dugun proiektuak berritasuna eskeintzen du, merkatuan berria izango delako. Gure proiektuan gazteek bakarrik izango dute parte hartzeko aukera, 16 urtetik 25 urterarte. Erraztasun guztiak eskaintzea da helburua, hau da, gazteetako batek arazoak edukiz gero, ibiltzeko garaian edo gaixotasunen bat, haietzako hainbat gauza jarriko ditugu beraiek ere dibertitu eta ondo pasa dezaten.

Ditugun helburuak poliki - poliki lortuz bagoaz enpresa handitu dezakegula ere pentsatu dugu. Enpresa honek arrakasta izatea nahi dugulako eta bezeroen parte hartzea ona bada hainbat herritara zabaldu dezakegu.

